

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak beharrezko zorpetze arrunta jarri du 2012ko Aurrekontu Orokorrak finantzatzeko

Ekonomia eta Ogasun Kontseilari Álvaro Mirandak jakinarazi du Gobernuak 274 euro jarri duela % 4,24ko batez besteko tipoa

Jueves, 09 de febrero de 2012

Nafarroak jada beharrezko zorpetzea jarri du 2012ko Aurrekontu Orokorrak finantzatzeko eta zor publikoak jaulkiz egin du oso arrazoizko prezioetan. Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilari Álvaro Mirandak prentsaurrekoan azaldu duenez, Gobernuak 274 milioi euro jarri du % 4,24ko batez besteko tipoa. 134 milioi euroko balioa duen AHTren zorra finantzatzear dago soilik Estatuaren kontura eta 2012an ezarriko den obra-programaren arabera. Álvaro Mirandarekin batera izan da Aurrekontuetako zuzendari nagusia Juan Franco.

Miranda lehendakariordeak azaldu duenez, [2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legean](#) jasotakoa betez, aurrekontu hori 411,8 milioitan finantzatzeko beharra aurreikusten zen. Kopuru hori honako era honetan xehatzen da: 170,9 milioi euro aurrekontuaren defizit-a betetzeko, 106,9 milioi euro zorpetzearen amortizazioak berriz finantzatzeko eta 134 AHT finantzatzeko, kasu honetan Estuari zenbatzen zaiona.

Aipatu denez, gaurko egunean 2012ko aurrekontua finantzatzeko bereganatutako baliabideen zenbateko guztia 274.000.000 €-koa da eta, horrekin, 2012ko Aurrekontuaren ohiko finantzaketaren beharrak ia erabat gauzatu dira, aurreikusitako aurrekontuaren defizitari dagokionez eta aurrez zeuden zorpetzearen epemugengatik berriz finantzatutako beharrei dagokienez.

AHTaren Hitzarmeneko obrei dagokien finantzaketari dagokionez, 134.000.000 euro arte, 2012ko ekitaldi honetan zehar egingo den inbertsio-bolumenari dagokion heinean gauzatzen joango da, eta Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak erabakitakoaren arabera.

Egindako operazioak

Horretarako, abendu eta urtarrileko hilabeteetan zenbait operazio egin du Nafarroako Gobernuak. 2011ko abenduan 54 milioi euroko zor publikoa jaulki zen (bonuak), 2016an duena epemuga, eta % 5,300eko interes-tipoarekin. 2012ko urtarrilean jada, bi operazio-mota egin dira: guztira 190 milioi euroko balioan lau jartze ezberdinetan egin diren betebeharrak eta bonuen zabalduetako lehen jaulkipen bat, 2014 eta 2017 arteko jaulkipenekin eta % 3,678 eta % 4,387 arteko tipoekin; eta 30 milioi euroko balioa duen bonuen bigarren jaulkipen bat hiru urtetara, % 3,650eko tipoekin.

Ministro Kontseiluaren Baimenak

Operazio horiek egin ahal izateko, Ministroen Kontseiluak azken hilabeteetan zorpetzeko bi baimena eman dizkio Nafarroari. Lehenengoari, 2011ko urriaren 28koa, Ministro Kontseiluak Nafarroako Foru Erkidegoari 476,1 milioi euro arte zorpetzeko gaitasun berri bat eman zion 2011-12-31 arte, Foru Erkidegoak 2010eko zorpetzeari dagokiona eta ez zuena erabili.

Kopuru horretatik soilik 54 milioi euro erabili zirela ikusita, Nafarroak Estatuari gainerako 422,1 euroak luzatzea eskatu zuen, eta Ministroen Kontseiluak luzapen hori martxoaren 31 arte baimendu zuen 2012ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran.

Luzapen horretan oinarrituz, guztira 220 milioi euro lortu dira era bizkor samarrean merkatuen likideziagatik eta Nafarroako Foru Erkidegoaren kalifikazio onagatik; eta aurrez adierazi denez, 2012ko Aurrekontuaren ohiko finantzaketaren beharrak osatzen dituzte, 2012an AHTren eraikuntzari dagokion zorra kontratatzeko zain.

Nafarroako egungo zor bizi guztiari dagokionez, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak adierazi du une hauetan 6 urtetako epe batera dagoela eta % 3,73ko batez besteko tipora. Aipatu du, baita ere, Nafarroaren zorpetze garbiaren eskubide biziak eta eskura dauden eskubideak oraindik 884,9 milioikoa direla (AHT barne).